Gipuzkoako Foru Aldundia
Lurralde Oreka Berdeko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Equilibrio Territorial Verde

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

**ZERBITZUAK: AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA DONOSTIAN EGINGO DEN LEHEN SEKTOREARI BURUZKO KONGRESUA ANTOLATZEKO.**

**1.- KONTRATUAREN XEDEA.**

**ZERBITZUAK**: aholkularitza eta laguntza, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak bere hiru alderdi estrategiko nagusietan egindako lanarekin lotutako kongresu bat antolatzeko:

(1) Lehen sektoreko jarduera ekonomikoa babestea eta indartzea.

(2) Klima aldaketaren aurkako babesa eta borroka Gipuzkoako ingurumenean, biodibertsitatean eta natura-ingurunean.

(3) Lurralde oreka zaintzea, herri txikiak eta landa ingurunea biziberrituz.

2025eko azaroan egingo da, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuarekin lotutako eragileek betetzen duten zereginari eta lurraldean oreka hori gordetzeko egiten duten ekarpenari balioa emateko. Ekitaldiaren helburua hau izango litzateke:

(1) Kide izatearen harrotasuna sustatzea eta komunitate honek lurralde-oreka berdea babesteko egiten duen lana aitortzea.

(2) Arlo honetako egungo eta etorkizuneko erronkei buruz hausnartzea, Departamentuaren ibilbide-orria aberastuko duten ondorioak ateratzeko.

Garatu beharreko ekintzak, gainera, *Ipuzkoa 1.000* ekimenaren barruan sartuko dira. Ekimen horrek gogoetan aurrera egitea eta gipuzkoarrek partekatzen dituzten balio komunitarioak indartzea du helburu, betiere iragana kontuan hartuta, baina etorkizunari begira. *Ipuzkoa 1.000* proiektuaren esparrua honako hauetan oinarritzen da:

(1) Gipuzkoaren egituraketa sozial eta historikoari buruzko ezagutza, duela 1.000 urtekoa, sakontzea eta gizarteratzea;

**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS**

**SERVICIOS: CONSULTORIA Y ASISTENCIA PARA LA ORGANIZACIÓN DE UN CONGRESO SOBRE EL PRIMER SECTOR EN SAN SEBASTIÁN.**

**1.- OBJETO DEL PLIEGO.**

**SERVICIOS:** consultoría y asistencia para la organización de un congreso relacionado con la labor realizada por el departamento de Equilibrio Territorial Verde en sus tres vertientes estratégicas principales:

(1) Apoyo y fortalecimiento de la actividad económica del sector primario.

(2) Protección y lucha contra el cambio climático en el medioambiente, la biodiversidad y el medio natural de Gipuzkoa.

(3) Salvaguardar el equilibrio territorial, revitalizando los pueblos pequeños y el medio rural.

A celebrar durante el mes de noviembre de 2025, cuya finalidad es poner en valor el papel desempeñado por los distintos agentes vinculados con el departamento de Equilibrio Territorial Verde y su aportación a preservar este equilibrio en el territorio. El objetivo del evento sería:

(1) Fomentar el orgullo de pertenencia y reconocer la labor que realiza esta comunidad en la preservación del equilibrio territorial verde.

(2) Reflexionar sobre los retos presentes y futuros en este ámbito con el propósito de extraer conclusiones que sirvan para enriquecer la hoja de ruta del Departamento.

Las acciones a desarrollar se enmarcarán además dentro de la iniciativa *Ipuzkoa 1000*, centrada en avanzar en la reflexión y reforzar los valores comunitarios compartidos por los y las guipuzcoanas, considerando el pasado, pero con la mirada puesta en el futuro. El marco del proyecto *Ipuzkoa 1.000* se centra en:

(1) Profundizar y socializar el conocimiento de la vertebración social e histórica de Gipuzkoa de hace 1.000 años;

SINAfa4b3d3f-2959-4d53-9e82-b0e34c6d9290

(2) Mendeetan zehar eraiki dugun sistema komunitarioaren eta haren oinarri diren balio nagusien ezagutzan sakontzea, etorkizunera begira komunitatearen zentzua eta gure lurraldearen izaera indartzeko helburuarekin.

(3) Gaur egungo eraldaketak eta korronte indibidualen hazkundea ikusita, gogoeta egitea eta gure sare ekonomikoari, gure ongizate-sistemari, bizikidetza politikoko balioei eta gure kulturari etorkizunean eusteko oinarriak ezartzea.

**2.- LANAREN NORAINOKOAK.**

Kontratatuko den zerbitzuak gutxienez hurrengo esparruen oinarriak landu beharko ditu:

- Gure Lurra Kongresuaren kontzeptualizazioa eta plangintza (helburuak eta irismena definitzea, plangintza, aurrekontua).
- Kongresuaren edukiak eta programa (programaren diseinua, hizlarien hautaketa eta kudeaketa).
- Idazkaritza teknikoa (gonbidapenak, kontratuak, garraioak eta ostatua).
- Kongresuko materialak inprimatzea + merchandising.
- Logistika eta ekoizpena: lekuaren kudeaketa, alokairua, baimenak, diseinua eta layout-a Gipuzkoako Foru Aldundiaren PLAZA[1] identitatearen arabera (irudia/identitatea osatzen duten elementuak definituta daude).

  * Kongresua egiten den tokiaren alokairua (Kursaal zentroa) Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatu eta ordaintzen du. Beraz, ez da sartzen kontratuaren objektuan (ezta prezioan ere).
- Ekitaldiari lotutako zerbitzuak kontratatzea eta koordinatzea (catering zerbitzua, ikus-entzunezkoak, itzulpena).
- Azpiegitura eta muntaketa (agertokiak, altzariak, seinaleak, akreditazioak eta antzekoak).

(2) Profundizar en el conocimiento del sistema comunitario que hemos ido construyendo a lo largo de los siglos y de los principales valores que lo sustentan con el objetivo de reforzar también de cara al futuro el sentido de la comunidad y el carácter de nuestro territorio.

(3) Ante las transformaciones actuales y el crecimiento de las corrientes individuales, reflexionar y sentar las bases para mantener a futuro nuestro tejido económico, nuestro sistema de bienestar, nuestros valores de convivencia política y nuestra cultura.

**2.- ALCANCE DEL TRABAJO.**

El alcance del servicio a contratar deberá cubrir como mínimo el soporte en los siguientes ámbitos:

- Conceptualización y planificación de Congreso Gure Lurra (definición de objetivos y alcance, planificación, presupuesto).
- Contenidos y programa del Congreso (diseño del programa, selección y gestión de ponentes).
- Secretaría técnica (invitaciones, contratos, traslado y hospedaje).
- Impresión de materiales congreso + merchandising.
- Logística y producción: gestión del lugar, alquiler, permisos, diseño y layout en función de la identidad PLAZA[1] de la Diputación Foral de Gipuzkoa (los elementos que conforman la imagen-identidad ya se encuentran definidos).

  * El alquiler del lugar en que se celebra el congreso (centro Kursaal) lo contrata y abona la Diputación Foral de Gipuzkoa. Por tanto, no entra dentro del objeto contractual (ni en el precio) del contrato.
- Contratación y coordinación de servicios asociados al evento (catering, audiovisuales, traducción).
- Infraestructura y montaje (escenarios, mobiliario, señalética, acreditación y similares).

SINAfa4b3d3f-2959-4d53-9e82-b0e34c6d9290

- Akreditazioak eta sarbide kontrola (erregistro plataformarako behar diren informazioa eta edukiak ematea, kredentzialak, check-in softwarea. Konfigurazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo du).

  Komunikazioa eta hedapena: Kongresuaren identitate bisuala garatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren PLAZA identitatetik abiatuta (irudia/identitatea osatzen duten elementuak definituta daude) eta ekitaldia behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren eduki grafiko guztien ekoizpena.

- Web plataforma eta app-a (kongresuaren web-plataformarako eta app-erako behar diren informazioa eta edukiak ematea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren PLAZA identitatearen arabera).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko komunikazio-taldeari behar beste eduki ematea komunikazio eta hedapen-plana garatzeko.
- Ekitaldia ekoiztea eta gauzatzea: ekipoa eta hornitzaileak koordinatzea.
- Parte-hartzaileen eta akreditazioen kudeaketa (euskarri teknikoa, informazioa).
- Gorabeheren kontrola (bezeroen arreta).
- Ebaluazioa eta itxiera. Kongresuaren edukiak eta ondorioak biltzea.

[1] "Plaza identitatea" hitzak markek kontsumitzaileekin elkarreragiten duten espazio edo leku baten (fisikoa edo digitala) irudia eta aitorpena osatzen duten elementuen multzoa adierazten du.

**3.-LAN HARREMANA BAZTERTZEA.**

Zerbitzu profesionala emango da enpresa adjudikaziodunaren langileekin edo adjudikaziodunarekin berarekin (pertsona fisikoa den kasuan) inola ere lan harremanik ezarri gabe.

Aurrekoa eragotzi gabe, eta kontratatutako zerbitzua behar bezala gauzatzen ari dela

- Acreditaciones y control de acceso (aportar la información y contenidos necesarios para la plataforma de registro, credenciales, software de check-in. La configuración correrá a cargo de la Diputación Foral de Gipuzkoa).

  Comunicación y difusión: Desarrollo de la identidad visual del congreso partiendo de la identidad PLAZA de la Diputación Foral de Gipuzkoa (los elementos que conforman la imagen-identidad ya se encuentran definidos) y producción de todos los contenidos gráficos necesarios para la correcta consecución del evento.

- Plataforma web y app (aportar información y contenidos necesarios para la plataforma web y app del congreso en función de la identidad PLAZA de la Diputación Foral de Gipuzkoa).
- Aportar cuantos contenidos sean necesarios al equipo de comunicación de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo del plan de comunicación y difusión.
- Producción y ejecución del evento: cordinación de equipo y proveedores.
- Gestión de asistentes y acreditaciones (soporte técnico, información).
- Control de incidencias (atención al cliente).
- Evaluación y cierre. Recogida de los contenidos y conclusiones del congreso.

[1] El término "identidad plaza" hace referencia al conjunto de elementos que conforman la imagen y el reconocimiento de un espacio o lugar (ya sea físico o digital) donde las marcas interactúan con los consumidores.

**3.-EXCLUSIÓN DE LA RELACIÓN LABORAL.**

La prestación del servicio profesional se realizará sin que en ningún caso pueda derivarse la existencia de relación laboral alguna con los trabajadores de la empresa adjudicataria o con el propio adjudicatario cuando aquél sea una persona física.

Sin perjuicio de lo anterior, el Departamento, al objeto de asegurar la correcta realización del

SINAfa4b3d3f-2959-4d53-9e82-b0e34c6d9290

ziurtatzeko, Departamentuak burutu diren zerbitzuen jarraipena egingo du eta zerbitzuak garatzeko jarraibideak ezarriko ditu.

**4.- ZERBITZURAKO HIZKETAKIDEA.**

Aholkularitza egingo da Lurralde Oreka Berdeko departamentuak ikuskatuta, eta hori Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako izendatzen duen pertsonak edo pertsonek egingo dute.

Ekintzaren jarraipena egiteko, aldizkako bilerak jarriko dira esleitutako enpresaren eta proiektuaren Zuzendaritzaren artean, horrek ez du eragotziko beharrezkoak izango balira beste kontaktuak erabiltzea, baina justifikatu beharko dira arduraldia eta egindako ekintzak kontratatutako zerbitzuaren eremuan.

Kontratuaren xede diren zerbitzuak garatzen diren bitartean, esleipendunak konpromisoa hartzen du, beti, Proiektuaren Zuzendaritzari horrek eskatutako informazioa eta dokumentazioa emateko, lanen garapenaren egoera guztiz ezagutzeko eta baita inoiz planteatu daitezkeen arazoak eta horiek konpontzeko erabilitako moduak ezagutzeko ere.

Proiektuaren Zuzendaritzaren funtzioak dira:

- Kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoak diren baliabideak eta antolaketa exijitzea.
- Baldintza-Teknikoen Agiria, eta kontratuan ezarritako beste baldintzak interpretatzea.
- Zerbitzuan sartu beharreko aldaketak programatzea.
- Kontratatutako lana etengabe zuzenean ikuskatzea eta zaintzea.
- Lana egiterakoan sortu daitezkeen intzidentzia guztiak bideratzea.
- Egindako lana ontzat ematea, kontratuaren prezioa ordaindu aurretik.

servicio contratado, deberá realizar el seguimiento de los servicios prestados y establecer directrices para su desarrollo.

**4.- INTERLOCUCIÓN PARA EL SERVICIO.**

La Asesoría se realizará bajo la supervisión del Departamento de Equilibrio Territorial Verde, el cual se llevará a cabo por la persona o personas que al efecto designe para ello la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Se establecerán reuniones periódicas de seguimiento de la actividad entre la empresa adjudicataria y la Dirección del proyecto, sin perjuicio de otros contactos que fuesen necesarios en las que será preciso justificar la dedicación y las acciones realizadas en el ámbito del servicio contratado.

Durante el desarrollo de los servicios objeto del contrato el adjudicatario se compromete, en todo momento, a facilitar a la Dirección del Proyecto la información y documentación que ésta solicite para disponer de un pleno conocimiento de las circunstancias en que se desarrollan los trabajos, así como de los eventuales problemas que puedan plantearse y de los métodos utilizados para resolverlos.

Las funciones de la Dirección del proyecto son:

- Exigir la existencia de los medios y organización necesarios para la realización del objeto del contrato.
- Interpretar el Pliego de Condiciones Técnicas y demás condiciones establecidas en el contrato.
- Programar las modificaciones que convenga introducir en el servicio.
- Ejercer de una manera continuada y directa la inspección y vigilancia del trabajo contratado.
- Tramitar cuantas incidencias surjan en la elaboración del trabajo.
- Aprobar el trabajo realizado previamente al abono del precio del contrato.

SINAfa4b3d3f-2959-4d53-9e82-b0e34c6d9290

**5.- ADMINISTRAZIOAK EMATEN DUEN DOKUMENTAZIOA ETA ASISTENTZIA.**

Kontuan hartu gabe esleipendunak beste iturrietatik lortu dezakeen informazioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskura jarriko du kontratu honen xedeari buruz dagoen informazio guztia eta beharrezkoa bada, esleipendunaren kudeaketak hirugarrengoekin erraztuko ditu.

**6.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA LANEN JABETZA.**

Edozein fasetan egiten diren lanak Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoak izango dira eta horrek, ondorioz, eskatu ahal izango ditu edozein unetan egindako lanen zatiak entregatzeko, betiere, bateragarria denean lanketaren behin betiko programarekin eta eragiten ez dionean lanen garapen egokiari.

Esleipenduna ezin izango du inoiz, ez berarentzat erabili, ez hirugarrengoei kontratatutako lanei buruzko datuak jakinarazi edo eman, ezta Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenik gabe lanen eduki osoa edo partziala argitaratu edo erreproduzitu ere. Dena den, esleipenduna izango da obligazio hori ez betetzeagatik eratorritako kalte-galeren erantzulea.

**7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.**

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu honako arau hauek: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 24. artikulutik 29.era bitarteko artikuluak; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa, 28.etik 33.era bitarteko artikuluak; eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, 25. xedapen gehigarria.

Enpresa kontratistak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, kontratu honen xede den zerbitzua emateko behar-beharrezkoak diren

**5.- DOCUMENTACIÓN Y ASISTENCIA APORTADA POR LA ADMINISTRACIÓN.**

Con independencia de la información que el adjudicatario pueda obtener de otras fuentes, la Diputación Foral de Gipuzkoa pondrá a su disposición cuanta información relativa al objeto del presente contrato exista y facilitará las gestiones del adjudicatario con terceros si esto fuera necesario.

**6.- CONFIDENCIALIDAD Y PROPIEDAD DEL TRABAJO.**

Los trabajos que se realicen en cualquiera de sus fases, serán propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa y ésta, en consecuencia, podrá exigir en cualquier momento la entrega de las partes del trabajo realizadas, siempre que sea compatible con el programa definitivo de elaboración y no afecte al correcto desarrollo de los trabajos.

En ningún caso el adjudicatario podrá utilizar para sí, ni comunicar o proporcionar a terceros datos de los trabajos contratados, ni publicar o reproducir total o parcialmente el contenido de los mismos sin autorización expresa de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En todo caso, el adjudicatario será responsable de los daños y perjuicios que se deriven del incumplimiento de esta obligación.

**7. TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES.**

La empresa adjudicataria quedará obligada al cumplimiento de los dispuesto en los artículos 24 a 29 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo Europeo de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales (en adelante RGPD), los artículos 28 a 33 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales y la Disposición adicional 25ª de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

La empresa contratista, como encargada del tratamiento, realizará el tratamiento de datos personales que sean estrictamente necesarios

SINAfa4b3d3f-2959-4d53-9e82-b0e34c6d9290

datu pertsonalak tratatuko ditu. Tratamendua identifikazio- eta harreman-datuen bilketara mugatuko da, inskripzioak kudeatzeko eta Kongresua antolatzeko (komunikazio- eta adituak lortzeko lanak).

Ondorio horietarako, ZPEren 28.3 artikuluan adierazitakoa betez, foru-aldundiak, tratamenduaren arduradun gisa, eta enpresa kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, dagokion enkargu-kontratua formalizatuko dute.

para prestar el servicio objeto del presente contrato. El tratamiento se limitará a la recogida de datos identificativos y de contacto, con la finalidad de utilizarlos para la gestión de las inscripciones y la organización del Congreso (labores de comunicación y captación de expertos).

A estos efectos, en cumplimiento de lo que señala el artículo 28.3 del RGDP, la Diputación Foral como responsable del tratamiento y la empresa contratista, como encargada de tratamiento, formalizarán el correspondiente contrato de encargo.

Donostia, 2025ko apirilaren 30a

San Sebastián, 30 de abril de 2025

Sin/Fdo: Mikel Arana Ibabe

ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOEN ATALBURUA
JEFE DE SECCIÓN DE OFICINAS COMARCALES AGRARIAS

EKS | CSV: SINAfa4b3d3f-2959-4d53-9e82-b0e34c6d9290
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv*